

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 439/2019 Erabakia, uztailaren 10ekoa. Onestea Elisa Irazu Mayayo andrea izendatzea behin-behineko langileek betetzekoa den Nekazaritza Saileko foru diputatuaren idazkari lanpostua betetzeko

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.11 artikuluan eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren laugarren xedapenean jasorikoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio diputatu nagusiaren edo dagokion foru diputatuaren proposamena entzun ondoren, foru aldundiko lanpostu zerrendan jasota dauden behin-behineko konfiantzako lanpostuak beteko dituztenak izendatzea.

Horregatik guztiagatik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 8.11 artikulua aitortzen dizkidan ahalmenak baliatuz, eta Foru Gobernu Kontseiluan gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honakoa

ERABAKITZEN DUT1

Lehenengoa. Elisa Irazu Mayayo izendatzea, konfiantzako behin-behineko langileek betetzekoa den Nekazaritza Saileko foru diputatuaren idazkari lanposturako (kodea: 1300.005). Eragin-data: 2019ko uztailaren 8an.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 10a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO